

## Giza txorimaloak



### **Lubakia**

Jatorrizko izenburua: Котлован

Egilea: Andrei Platonov

Itzultzailea: Iker Sancho

Argitaratze urtea: 2009

Argitaletxea: Alberdania&Elkar

### KARLOS DEL OLMO

1920an, jaió berria zen Sobiet Batasuneko idazleei inkesta bat bidali zieten. Besteak beste, ondokoa galdetu omen zuten: "Zein literatur joerak erakartzen zaitu?". Andrei Platonovich Klimentovek 21 urte zituen garai hartan, eta honako hau erantzun zien: "Batek ere ez. Nirea baino ez den joera baten jabe naiz". Literaturaren historia dirdiratsuan uste baino ohikoagoak diren orri beltz asko eta asko bete litezke Andrei Platonovi bizi artean eta hil ondoren fortunaturikoekin. Bizirik zegoela, zentsura bortitza eta agintarien gaitzespena jasan zituen. Hildakoan, luzaro, bigarren heriotza baten parekoa den ahaztura. Haren idazlan osoak oraindik ez dira behar bezala argitaratu, ezta errusieraz ere. Eta baliteke inoiz ere plazara behar bezala ez agertzea: original batzuk galduta daude edo zentsura sobietikoak aldatuak besterik ez da heldu gure egunetara. Egoera are tristeagoa da Andreiren dramaturgiari eta poesiari dagokionez: guztiz ezezagun dira.

Ez da erraza Andreiren prosa irakurtzea, ezta errusiarrentzat eurentzat ere, ez baita oso idaztanka ohikoa: ez dago erraz ulertzeko moduko argudiorik, gertakizun dramatikoekin lerro argirik, zehazki eraikitako pertsonaiarik, ohiko baliabide literario ezagunak. Azken batean, beste idazle batzuen lanetan bezala —berbarako, Malcolm Lowry—, idazkiak ez daude eginda irakurleari gauzak errazteko, ezerk ez du laguntzen literatur lanaren osagaietan euskarri hartzeko moduko balio nabarmenik topatzen. Beraz, zertaz dihardu Platonovek? Gaitzat bizitza darabil, bizitzaren mina eta odola, handitasuna eta arrotasuna, logika eta zentzugabekeria, hauskortasuna eta mugagabetasuna. Idazkiak irakurlea mundu ireki eta arrotz batera bultzatzen duela dirudi. Irakurlea bakarrik sentiarazten du eta pertsonaiekin batera sufriarazten, baita egia eta bizitzaren esangura harekin batera bilatzen ere.

Eta hori guztia gorabehera, zerk bihurtu du Platonov XX. mendeko idazle klasikoa? XIX. mendeko idazle errusiar klasikoekiko lotura sendoak izateak; klasikoekin antzera, erlijio sinbologiaren eta filosofoen lanen oinarria erabilita, literatura sobietikoaren gai materialista berrietara heldu izanak, nahiz eta estiloak eta lexikoak erreialismo sozialistaren joeretatik urruntzen zuten, batera. Klasikoekin antzera, bizitzaren aurrean jarrera ez literarioa izaten zuten, literaturaz harantzago joan nahi izaten zuten, idazlearen lumak bizitzaren misterioa argitu dezakeelakoan.

Bizitzaren alderdirik latzenak oso txikitatik ezagututa —umetan lanean hasi behar izan zuten—, asko kostata lortutako ikasketak Lehenengo Mundu Gerrak eten zizkion. Urriko Iraultza boltxebikeak ere bizitza guztiz gainazpikatu zion. Borondatezko gerra korrespontsal modura jardun zuten Bigarren Mundu Gerran,

bizitza hainbat alditan arriskuan jarrita. Gerra hartan batutako tuberkulosiak, urtea joan urtea etorri, herioa ekarri zion. Giro bortitz hura gorabehera, haren lehenengo liburua, 1922an argia ikusia, poema sorta bat izan zen.

Hasieratik bertatik iraultzako proletarioekin identifikatu arren —"Langile klasea dut jaioterri eta nire geroa proletarioei lotuta dago"—, agintari sobietikoen zentsura jasan behar izan zuen sozialismoa eraikitzeke lanetan ikusten zituen hutsuneak agerian jartzen zituelako: lan behartua, gehiegizko burokrazia, gerra zibilaren ondorioak gainditu beharra... Ondorio latza jasan behar izan zuen: argitaratzeko debekua. Horrek zorioneko albo ondorio bat izan zuen, dena dela: literatur kritika eta historiografia lantzeari heldu behar izan zion.

Emazteari behin gutun batean esan zionez, "Nik Armada Gorriko soldaduen istorioak idazten ditut. Emaidza prosazko requiem halako bat da. Nire hitza soldadu errusiarrek egindako balentriaren parekoa izatea gura nuke". Hori dena jakinda, ez dago zertan harritu *Lubakian* baserritarren berbeta eta termino politiko eta ideologikoak elkarren ondotoxoan agertzen badira. Baliabide literario horrek sortzen duen irrealtasun giroan lagungarri gertatzen dira narrazioaren jazoera harrigarri eta fantastikoak. Ondorioz esan genezake zentzugabekeriaren ikerketa literario horrek zuzeneko loturak ezartzen dituela existentzialismoarekin eta absurdoaren literaturarekin. Horrek guztiak eta Brodskiren nahiz beste aditu batzuen iritziz Platonov "itzulezina" izateak (zer da itzulezintasuna, kategoria ala gertakaria?) Iker Sanchori lantegi zaila jarri diote. Emaidzan, halere, itzulezintasun horren lorratz gutxi topatuko dugu, itzultzaileak lan eskerga gauzatu duen aldetik. Euskarazko edizio honetan aipatzekoa da kredituen orrian jatorrizko izenburua aipatzen duen atalean egilearen izena ere agertzea alfabeto zirilikoan idatzirik.

Andreiren lanei esker, guk ere berarekin batera aldarrika dezakegu ozen "Gure zatartasunetik munduaren arima sortuko da".